



**BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN  
PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO  
PROTOKOLO INTEGRATUA**

**ALPINO UZTURRE ELKARTEA**

	ALDAKETEN HISTORIALA	
BERRRIKUSPENA	DATA	ALDAKETA
0	2026-03-16	Hasierako bertsioa



# BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA

## AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA</b>	<b>2</b>
<b>1. HELBURUA ETA XEDEA</b>	<b>3</b>
<b>2. EREMUA ETA APLIKAZIOA</b>	<b>3</b>
<b>3. LEGE ESPARRUA</b>	<b>4</b>
<b>4. PRINTZIPIO GIDARIAK</b>	<b>5</b>
<b>5. FUNTSEZKO DEFINIZIOAK</b>	<b>5</b>
<b>6. ARDURADUN INSTITUZIONALAK: BABES- ORDEZKARIA</b>	<b>6</b>
<b>7. PREBENTZIO- ETA BABES-NEURRIAK</b>	<b>7</b>
7.1. Langileen hautaketa eta prestakuntza	7
7.2. Jokabide-kodea	7
7.3. Jardueren antolaketa	8
7.4. Komunikazio-kanala	8
<b>8. JAZARPENAREN AURREKO ESKU-HARTZE PROZEDURA</b>	<b>8</b>
8.1. Prozeduraren hasiera	9
8.2. Hasierako kautelazko neurriak	9
8.3. Barne-ikerketa	10
8.4. Ebazpena eta neurriak	11
8.5. Jarraipena	11
<b>9. ADINGABEEN BABESA</b>	<b>12</b>
3.1. Printzipio orokorrak	12
3.2. Prebentzio-neurriak	12
3.3. Arrisku-egoeren aurreko prozedura	13
3.4. Adingabeen eskubideak	14
3.5. Ondorengo jarraipena	14
<b>4. DIZIPLINA-ERREGIMENA</b>	<b>15</b>
<b>5. ZABALKUNDEA ETA EBALUAZIOA</b>	<b>15</b>
<b>6. ERANSKINAK</b>	<b>15</b>
6.1. I. Eranskina – Salaketa-inprimakia	15
6.2. II. Eranskina – Jokabide Kodea	17
6.3. III. Eranskina – Kartel laburpena	18
6.4. IV. Konpromiso-sinadurak	19



## BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA

---

### 1. HELBURUA ETA XEDEA

Protokolo honen helburua jarduera-esparru integral bat ezartzea da, honako hauek bermatzeko:

- Uzturre Alpino Elkartearen jarduera guztietan genero-indarkeriaren, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurreko prebentzioa, hautematea eta esku-hartzea.
- Haurren eta nerabeen babes integrala edozein indarkeria, abusu edo zabarkeria motaren aurrean, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Dokumentu hau behartzailea da bazkide guztientzat, teknikarientzat, boluntarioentzat eta familientzat, eta helburu hauek ditu:

- Ingurune seguru, inklusibo eta errespetuzkoa bermatzea.
- Benetako genero-berdintasuna sustatzea.
- Klubaren jarduera guztietan adingabeen babesa ziurtatzea, batez ere kontaktu fisikoa, joan-etorriak edo gau-egonaldiak dituztenetan.

Hala, protokoloak bi dimentsio integratzen ditu: kirol-eremuan indarkeria eta jazarpena prebenitzea, eta adingabeen babesa mendiko, eskalada, *trail*-eko eta eskiko jardueren testuinguruan.

### 2. EREMUA ETA APLIKAZIOA

Protokoloa Elkarteari lotutako pertsona guztiei aplikatzen zaie:

- Bazkideak.
- Zuzendaritza Batzordea.
- Talde teknikoa (monitoreak, entrenatzaileak)
- Boluntarioak.
- Parte hartzen duten adingabeen familiak.

Atal eta jarduera espezifikoak:



## **BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA**

---

- Mendizaletasuna: talde-irteerak.
- Eskalada: entrenamenduak eta txapelketak.
- Traila: entrenamenduak eta adingabeentzako prestakuntza.
- Eskia: adingabeen prestakuntza eta txapelketa.

Klubak garatutako jarduera guztiak barne hartzen ditu:

1. Entrenamenduak, eskolak eta tailerrak.
2. Mendi-irteerak.
3. Txapelketak, joan-etorriak eta kontzentrazioak.
4. Bidaiak eta gau-egonaldiak.
5. Prestakuntza-jarduerak.
6. Klubari lotutako ingurune digitalak (WhatsApp, posta elektronikoa, sare sozialak).

### **3. LEGE ESPARRUA**

Protokolo hau indarreko araudi hauetan oinarritzen da:

- 8/2021 Lege Organikoa (aurrerantzean, LOPIVI): haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoa.
- 2/2024 Legea (Euskadi): haur eta Gazteena, Euskal Autonomia Erkidegoan babes-esparru espezifikoak ezartzen duena.
- 10/2022 Lege Organikoa: Askatasun sexualaren berme integralkoa ("soilik baietz da baietz" legea).
- 1/2022 Legea (Euskadi): emakumeen eta Gizonen Berdintasunera eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoari buruzkoa.
- 2/2023 Legea (Euskadi): Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolarena, kirol-ingurune seguruak bermatzeko betebeharrak ezartzen duena.
- 39/2022 Legea (Estatua): kirolarena.
- 1/2004 Lege Organikoa: genero-indarkeriaren aurka osorik babesteko neurriak buruzkoa.



## **BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA**

---

- 2/2015 Foru Araua (Gipuzkoa): emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- Emakunde-ren eta kirol-erakundeen jarraibideak eta gomendioak.

### **4. PRINTZIPIO GIDARIAK**

Protokoloa honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Adingabearen nagusitasun-interesa: erabaki guztietan haurren eta nerabeen segurtasuna eta ongizatea lehenesten dira.
- Prebentzio aktiboa: indarkeria- edo arrisku-egoerak ekiditeko alde zuzeneko neurriak hartzea.
- Benetako berdintasuna: emakumeen eta gizonen arteko tratua- eta aukera-berdintasuna bermatzea.
- Babesa eta laguntza: indarkeria edo jazarpena jasan duten pertsonen berehalako babesa eta etengabeko laguntza ematea.
- Konfidentzialtasuna: informazio guztia isilpean kudeatuko da, eta sarbidea mugatua izango da.
- Berrbiktimizaziorik eza: kasuaren kudeaketatik kaltetutako pertsonen kalte gehigarriak ez jasatea bermatuko da.
- Inpartzialtasuna eta ardura: edozein gertakariren aurrean modu objektibo, azkar eta gardenean jardutea.

### **5. FUNTSEZKO DEFINIZIOAK**

Protokoloa zuzen interpretatzeko, honako kontzeptu hauek zehazten dira:

- Indarkeria matxista: emakume izateagatik haien aurka egindako indarkeria fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoko ekintza oro.



## **BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA**

---

- Sexu-jazarpena: pertsona baten duintasunaren aurka egiten duen sexu-izaerako jokabide oro (hitzezkoa, ez-hitzezkoa edo fisikoa), nahi gabea denean.
- Sexuan oinarritutako jazarpena: pertsona baten sexuan oinarritutako jokabidea, ingurune beldurgarri, degradatzaile edo iraungarria sortzen duena.
- Kirol-eremuko indarkeria: iruzkin sexistak, tratu desberdina, aginte-keria, kontaktu fisiko desegokia edo isolamendu-egoerak barne hartzen ditu.
- Adingabeen aurkako indarkeria: kalte fisikoa, psikologikoa, sexuala edo zabarkeria eragiten duen edozein ekintza edo omisio, ziberjazarpena edo kirol-jardueretan gertatutako aginte-keria barne.

### **6. ARDURADUN INSTITUZIONALA: BABES-ORDEZKARIA**

8/2021 Lege Organikoak (haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko) ezartzen duenari jarraituz, Uzturre Alpino Klubak Babes Ordezkiaren figura sortu du. Pertsona honen eginkizun nagusia adingabeen ongizatea zaintzea eta edozein indarkeria-zantzuren aurrean erreferentzia-puntu izatea da. Ordezkar horrek beharrezko prestakuntza izango du prebentzioan eta esku-hartzean laguntzeko.

8/2021 Lege organikoaren eta 2/2024 Legeen arabera, Babes Ordezkiak honako funtzio hauek izango ditu elkartean:

- Erreferentzia izatea: adingabeek edozein indarkeria-zantzu jakinarazteko pertsona hurbila eta fidagarria izatea.
- Prebentzioa: monitoreek eta boluntarioek Delitu Sexualen ziurtagiri negatiboa aurkeztu dutela ziurtatzea.
- Sentsibilizazioa: talde teknikoari eta familiei adingabeen babeserako jarraibideak azaltzea.



## **BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA**

---

- Koordinazioa: jazarpen kasuetan, Zuzendaritza Batzordearekin eta, beharrezkoa bada, Fiskaltzarekin edo Gizarte Zerbitzuekin harremana kudeatzea.
- Ingurune segurua: elkarteko jardueretan "ingurune segurua" bermatzeko neurriak (bainugelak, aldagelak, bidaiak) gainbegiratzea.

## **7. PREBENTZIO- ETA BABES-NEURRIAK**

### **7.1. Langileen hautaketa eta prestakuntza**

- Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa: derrigorrezkoa talde tekniko eta boluntario guztientzat.
- Egokitasun-ebaluazioa eta lan-erreferentziak aztertzea.

### **7.2. Jokabide-kodea**

Derrigorrez bete beharrezkoa, honako gai hauei buruzko arauak barne:

- Errespetua eta tratu duina.
- Hizkera inklusiboa eta ez-diskriminatzailea.
- Kontaktu fisiko egokia eta gardena.
- Komunikazio digitalen erabilera arduratsua.
- Adingabeekiko elkarreragin segurua.

### **7.3. Jardueren antolaketa**

- Taldeen etengabeko gainbegiratzea.
- Helduen eta adingabeen arteko ratio egokiak.



## **BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA**

---

- Adingabeen isolamendu fisikoa ekiditea.
- Protokolo argiak bidaietan, gau-egonaldietan eta joan-etorrietan.
- Familiekiko komunikazio gardena.

### **7.4. Komunikazio-kanala**

8/2021 Lege organikoaren eta 2/2024 Legeen arabera, Klubak Barne Salaketa-Kanala (Informazio Sistema) jarri du martxan. Kanal honek honako hauek bermatzen ditu:

1. Konfidentzialtasuna eta segurtasuna: jakinarazpenak egiten dituzten pertsonen anonimotasuna eta babesa ziurtatuko da.
2. Irisgarritasuna: salaketa ipintzeko erreztasunak emango bazkide, teknikari, boluntario zein familientzat (posta elektronikoko bidez -(berdintasuna@alpinouzturre.eus- edo formulario baten bidez).
3. Berehalako esku-hartzea: edozein abusu, jazarpen edo zabarkeria kasuren aurrean, protokoloan jasotako prozedura azkarra aktibatuko da, biktimaren babesa lehenetsiz.

## **8. JAZARPENAREN AURREKO ESKU-HARTZE PROZEDURA**

Esku-hartze prozedurak bermatzen du indarkeria- edo jazarpen-egoera oro azkartasunez, segurtasunez eta konfidentziasunez kudeatuko dela.

### **8.1. Prozeduraren hasiera**

Prozedura honako hauek hauteman edo jakinarazten direnean hasiko da:



## BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA

---

- **Salaketa formala:** kaltetutako pertsona batek edo lekuko batek idatzizko salaketa (berdintasuna@alpinouzturre.eus) edo ahozkoa aurkezten dio Babes- ordezkaritari edo Berdintasunerako eta Adingabeen Babeserako Batzordeari.
- **Informazio-jakinarazpena:** edozein pertsonak eman dezake kezka eragiten duten jokabideen berri, nahiz eta salaketa formalik ez jarri, egoera balora dadin.
- **Arrastoak hautematea:** talde teknikoak, zuzendaritza-batzordeak edo boluntarioek jazarpena edo indarkeria adieraz dezaketen jokabideak identifikatzen dituztenean.

### 8.2. Hasierako kautelazko neurriak

Egoera identifikatzen denetik, Berdintasunerako eta Adingabeen Babeserako Batzordeak behin-behineko neurriak har ditzake kaltetutako pertsona babesteko eta ingurunearen osotasuna bermatzeko:

- Salatutako pertsona biktimarengandik edo egoera gertatu den taldetik aldi baterako aldentzea.
- Implikatutako entrenatzaile, monitore edo talde teknikoko kideen funtzioak aldi baterako etetea.
- Jarduerak egokitzea: taldeak, txandak edo entrenamenduak berrantolatzea arriskuak minimizatzeko.
- Biktima babestea: bere parte-hartzearekin jarraitu ahal duela bermatzea, salatutako pertsonarekin kontakturik izan gabe eta errepresalia-arriskurik gabe.



### **8.3. Barne-ikerketa**

Berdintasunerako eta Adingabeen Babeserako Batzordeak ikerketa objektiboa, konfidentziala eta azkarra egingo du:

- Informazio-bilketa: banakako elkarrizketak kaltetutako pertsonarekin, balizko lekukoekin eta salatutako pertsonarekin.
- Dokumentazioa: mezu elektronikoak, WhatsApp mezuak, jardueren erregistroak, argazkiak edo bideoak biltzea, garrantzitsuak badira.
- Testuinguruaren analisia: alderdien arteko harremana, gertaeren iraupena, larritasuna eta errepikatzeko arriskua baloratzea.
- Auzitako epeak:
  - Ikerketaren hasiera: salaketa edo detekzioa gertatu eta 24-48 ordura.
  - Atariko txostena: 10-15 egunera.
  - Behin betiko txostena eta neurrien proposamena: kasua ireki eta 20 egunera.

### **8.4. Ebazpena eta neurriak**

Ikerketa amaitu ondoren, Berdintasunerako eta Adingabeen Babeserako Batzordeak hartu beharreko ekintzak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari:

- Kasua artxibatzea: zantzu nahikorik ez dagoenean.
- Zuzentze-neurriak: prestakuntza gehigarria, taldeen antolaketan aldaketak edo oharrak.
- Zigor diziplinarioa: kexua, etetea edo desgaitzea.



## **BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA**

---

- Klubetik kanporatzea: kasu larrietan edo behin eta berriz gertatzen direnetan.
- Kanpoko agintariei jakinaraztea: poliziari, gizarte-zerbitzuei edo tutoretza-organoei, egoerak hala eskatzen badu.

### **8.5. Jarraipena**

Ebazpenaren ondoren:

- Kaltetutakoari laguntza ematea: jarraipen psikologikoa beharrezkoa bada, eta Batzordearekin aldizkako harremana izatea.
- Ingurunea ebaluatzea: jardueretako bizikidetza gainbegiratzea eta neurri prebentiboak berrikustea.
- Egoera berriak prebenitzea: ikasitakoa jardueren plangintzan sartzea, jokabide-kodean doikuntzak egitea eta prestakuntza gehigarria ematea.

## **9. ADINGABEEN BABESA**

Klubak prozedura espezifiko bat aplikatzen du haur eta nerabeentzat, haien segurtasun integrala bermatuz, 8/2021 Lege Organikoaren arabera.

### **3.1. Printzipio orokorrak**

Hauek dira adingabeen babesaren printzipio orokorrak:

- Adingabearen nagusitasun-interesa: erabaki guztietan haien ongizatea eta segurtasuna lehenesten dira.
- Arriskuen prebentzioa: indarkeria- edo abusu-egoera posibleei aurrea hartzen zaie.



## BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA

---

- Goiz detektatzea: jokabide-aldaketen, lesioen edo alarma-zeinuen behaketa aktiboa.
- Berehalako esku-hartzea: adingabea babesteko esku-hartze azkarra.
- Konfidentziasuna eta gardentasuna: informazioa modu seguruan kudeatzen da eta familiei modu arduratsuan informatzen zaie.

### 3.2. Prebentzio-neurriak

Adingabeen babeserako, hainbat prebentzio- neurriak jasotzen dira:

- Langileen hautaketa:
  - Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa derrigorrezkoa da.
  - Egokitasun-ebaluazioa eta lan-erreferentziak aztertzea.
- Derrigorrezko prestakuntza:
  - Haurren babesa, abusuak detektatzea eta indarkeriaren prebentzioa.
- Jarduera seguruaren antolaketa:
  - Adingabeekin egiten diren jardueretan gutxienez bi heldu arduradun egongo dira beti.
  - Helduen eta adingabeen arteko isolamendu fisiko edo bisuala ekiditea.
  - Etengabeko gainbegiratzea entrenamenduetan, bidaietan eta gau-egonaldietan.
- Kontaktua eta komunikazioa:
  - Klubeko kanal ofiziala, familiekin gardena.
  - Talde teknikoaren eta adingabeen arteko gainbegiratu gabeko komunikazio pribatuak debekatuta daude.



### **3.3. Arrisku-egoeren aurreko prozedura**

- Hautematea edo jakinaraztea:
  - Monitore batek, senide batek edo adingabe batek balizko arrisku edo abusu baten berri ematen du.
  - Babes Ordezkariak berehala hartuko du ohar.
- Berehalako esku-hartzea:
  - Erasotzailea aldentzea.
  - Adingabearen babes fisiko eta emozionala.
  - Berdintasunerako eta Adingabeen Babeserako Batzordeari jakinaraztea.
- Babes Ordezkariaren ebaluazioa:
  - Probak, elkarrizketak eta testuingurua berrikustea.
  - Premiazko neurrien beharra baloratzea.
- Kanpoko agintariei jakinaraztea:
  - Haurtzaroan espezializatutako gizarte-zerbitzuak.
  - Segurtasun indar eta kideak.
  - Agintari judizialak, hala badagokio.
- Erregistroa eta jarraipena:
  - Egindako ekintzen eta hartutako neurrien dokumentu konfidentziala.
  - Etengabeko jarraipena, adingabearen segurtasuna eta ongizatea bermatu arte.

### **3.4. Adingabeen eskubideak**

Protokolo honen babes eremuan, hauek dira, besteren artean, adingabeen eskubideak:



## **BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA**

---

- Entzunak izatea eta haien iritzia kontuan hartzea, adinaren arabera modu egokian.
- Prozedura osoan zehar babestuak eta lagunduak izatea.
- Eragingiten dieten ekintzei buruzko informazio ugaria eta ulergarria jasotzea.
- Arrisku edo abusu baten berri emateagatik errepresaliarik edo diskriminaziorik ez jasatea.

### **3.5. Ondorengo jarraipena**

- Adingabeak jardueretan berriro modu seguruan parte har dezakeela ziurtatzea.
- Gainbegiratu gehigarria eta prebentzio-neurri indartuak, egoerak hala eskatzen badu.
- Ezarritako neurrien eraginkortasunaren aldizkako ebaluazioa.

## **4. DIZIPLINA-ERREGIMENA**

Protokolo honen aurkako jokabideek honako zigoru hauek ekar ditzakete:

- Ahozko edo idatzizko ohartarazpena
- Aldi baterako etendura
- Klubetik kanporatzea
- Gaitasungabetzea funtzio teknikoetarako edo boluntariotzarako



## **5. ZABALKUNDEA ETA EBALUAZIOA**

Protokoloan jasotakoa aurrera eman ahal izateko

- Klubari lotutako **pertsona guztien eta familien artean zabaltzea**
- Ikusgarritasuna espazio fisikoetan, webgunean eta prestakuntza-materialetan
- Protokoloaren eraginkortasunaren urteko ebaluazioa
- Berrikuspena eta eguneratzea bi urtean behin edo araudia aldatzen denean

## **6. ERANSKINAK**



## **6.1. I. Eranskina – Salaketa-inprimakia**

Salatzailearen datuak (aukerakoa):

Izena: \_\_\_\_\_

Telefonoa / Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kaltetutako pertsonaren datuak (desberdina bada):

Izena: \_\_\_\_\_

Salatutako pertsona:

Izena: \_\_\_\_\_

Gertakarien deskribapena:

\_\_\_\_\_

Aurkeztutako dokumentazioa:

\_\_\_\_\_

Neurrien eskaera:

\_\_\_\_\_

Data eta sinadura: \_\_\_\_\_



## **6.2. II. Eranskina – Jokabide Kodea**

- Uneoro errespetua eta berdintasuna mantentzea.
- Indarkeriarik edo jazarpenik ez erabiltzea.
- Kontaktu fisiko egokia eta gardena izatea.
- Bakartze-egoerak saihestea.
- Adingabekoen jardueretan gainbegiratzea egotea.
- Komunikazio digitalak arduraz erabiltzea.
- Betetzeko konpromisoa: langile teknikoek eta boluntarioek derrigorrez sinatu beharrekoa.



### **6.3. III. Eranskina – Kartel laburpena**



#### **ALPINO UZTURRE ELKARTEA – ESPAZIO SEGURUA**

Gure elkartean, kirola balioetan oinarritzen da. Konpromiso irmoa dugu pertsona guztien segurtasunarekin eta berdintasunarekin.

#### **🚫 ZERO TOLERANTZIA**

- **Genero-indarkeriaren**, jazarpenaren eta adingabeen aurkako edozein abusu-motaren aurrean.
- Haur eta nerabeen **lehentasunezko babesa** bermatzen dugu.
- **Errespetua eta berdintasuna** gure jarduera guztien oinarri dira.

#### **EGOERAREN BAT IKUSI EDO JASAN DUZU?**

Ez zaude bakarrik. Gure elkarteak babesa eta irtenbidea emateko protokoloak ditu. **Jarri harremanetan gure arduradunarekin:**

✉ **Posta elektronikoa:** [berdintasuna@uzturre.eus](mailto:berdintasuna@uzturre.eus)

👤 **Arduraduna:** Aitor Oiarbide

*(Berdintasuneko eta Adingabeen Babeserako Arduraduna)*



## **6.4. IV. Konpromiso-sinadurak**

Alpino Uzturre Elkartean Indarkeriaren Prebentziorako eta Adingabeen Babeserako Protokoloa ez da gomendio multzo bat soilik, elkarteko kide guztientzat nahitaez bete beharreko araudia baizik. Euskadiko 2/2023 Legeak eta 8/2021 Lege Organikoak ezartzen duten "beharrezko diligenza" bermatzeko, elkarteko estamentu guztiek dokumentu hau ezagutu eta berariaz onartu behar dute.

Atxikimendu honek ziurtatzen du pertsona bakoitzak bere erantzukizuna ulertzen duela eta elkarrekin tresna legalak dituela arau-hausteen aurrean jarduteko.

Hona hemen talde bakoitzak noiz eta nola sinatu behar duen:

1. Langile teknikoak eta boluntarioak (entrenatzaileak, mendi gidariak, monitorea)

- Noiz: Klubean kontratatzen edo sartzan diren unean. Lehendik kide badira, protokoloa aurkezteko informazio-saio batean sinatuko da.
- Zertan datza: erantzukizunpeko adierazpena da; bertan, Jokabide Kodea (II. eranskina) irakurri dutela, onartzen dutela eta hautematen duten jazarpen-seinalerik badago horren berri emateko konpromisoa hartzen dutela berresten dute.
- Garrantzia: Sinadura honi esker, klubak diziplina-erregimena (etendura edo kanporatzea) zuzenean aplikatu ahal izango du, arauak betetzen ez badira.

2. Sailen arduradunak eta Zuzendaritza Batzordea (Mendi-ibiliak, Eskalada, etab.)

- Noiz: Urtean behin edo Batzordeko karguak berritzerakoan.



## BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA

---

- Zertan datza: Protokoloaren berromatzaile gisa sinatzea. Beren sailetan "Espazio Segurua" errespetatzen dela bermatzeko eta Babes Ordezkariek jardun dezan beharrezko baliabideak errazteko konpromisoa hartzen dute.
- Garrantzia: Klubaren "beharrezko diligentsia" frogatzen du balizko ikuskapen edo auzi judizialen aurrean.

### 3. Familiak eta adingabeen tutoreak

- Noiz: Jardueretan urteroko izena ematen denean edo bazkide-kuota ordaintzerakoan.
- Zertan datza: "Ezagutza-konpromisoa" da. Protokolo bat dagoela badakitela sinatzen dute, arazoak egonez gero harremanetarako pertsona nor den badakitela, eta beren seme-alabek bizikidetzara arauak errespetatuko dituztela hitz ematen dute.
- Garrantzia: LOPIVI legeak familiei ingurune seguruei buruzko informazio proaktiboa emateko ezartzen duen eskakizuna betetzen du.

### 4. Berdintasuneko eta Adingabeen Babeserako Batzordea

- Noiz: Batzorde hori eratzeko aktan.
- Zertan datza: Konfidentzialtasun absolutuaren eta I. eranskinaren bidez jasotako edozein salaketaren aurrean berehala jarduteko konpromisoa.

### 5. Izena emate inprimakitan sartu beharreko edukia:



## BERDINTASUNERAKO, INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ADINGABEEN BABESERAKO PROTOKOLO INTEGRATUA



### ATXIKIMENDU ETA KONPROMISO AGIRIA

**ELKARTEA:** Alpino Uzturre Elkarte

**LEGE-ERREFERENTZIAK:** Euskadiko 2/2023 Legea eta 8/2021 Lege Organikoa (LOPIVI).

### **BABES-PROTOKOLOA ETA JOKABIDE KODEA ONARTZEN DITUT:**

[Klubaren Izena] klubeko **Indarkeriaren eta Jazarpenaren aurkako Babes Protokoloa** eta bertan jasotako jokabide-arauak ezagutzen ditudala adierazten dut. Horiek errespetatzeko eta kirol-ingurune seguru eta indarkeriarik gabea mantentzen laguntzeko konpromisoa hartzen dut.

Era berean, ulertzen dut arau horiek ez betetzeak aurreikusitako diziplina-neurriak (**ohartarazpena, aldi baterako etendura edo kanporatzea**) ekar ditzakeela, dagozkion lege-erantzukizunak baztertu gabe.

Adingabeentzako jardueren kasuan, klubeko **Babes Ordez kariaren** nortasunaren eta harremanetarako bideen berri eman zaidala berresten dut.

**DATA:** 20\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (a)

**SINADURA:**

\

**Izen-abizenak:**

**NAN/AIZ:**

**Rolea:** (Entrenatzailea / Gurasoa / Zuzendaritzako kidea / Boluntarioa)